

JAINKOA<sup>GAN</sup>  
JARTZEN  
DUT NITZE  
ITXAROPENA

Hitzarekin  
topatuz



Donostiako  
Gotzaindegia  
Obispado de  
San Sebastián



DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA / DIOCESI DE SAN SEBASTIÁN / 15 VIRETURRENA / ANIVERSARIO



# SARRERA

Jubileuak dakarren mezu nagusia itxaropena da. Eraberritze pastoral eta misiolaria aurrera eramateko prozesuan da gure Elizbarrutia. Bailaretara egin ditugun ikustaldietan honako honetaz ohartu gara: kristau elkarteak eta jarduera pastoralak Hitzaren argiz argitu beharrean direla. Jaunak eskaintzen dizkigun aldien aldiko zantzueta Jainkoaren graziak ematen digun itxaropena berriz ere aurkitzera deituak gara. Vatikanoko II. Kontzilioak hau dio: «Elizari dagokio aldien ezaugarriak une guztietan sakonki aztertu eta Ebanjelioaren argitan interpretatzea» (GS 4).

«Spes non confundit», «Itxaropenak ez du huts egiten» (Erm 5, 5): hauxe da 2025eko Jubileuari hasiera ematen dio buldaren idazpurua. Hitz horiekin, adorea eman nahi zion San Paulo apostoluak Erromako kristau elkarteari. Eraberritze pastoral eta misiolaria aurrera eramateko, beste ezer baino lehen, eraberritze espiritua behar da. Gutun pastoralean «Harengan gure itxaropena» idatzi zigun, honako hau oroitarazi zigun Gotzainak: Beti abian den prozesua da fede-esperientzia, beti landu

beharrekoa; eta gaur egun berritu eta suspertu beharra dugu esperientzia hori bai norberaren bizitzan bai gure talde eta elkarteetan. [...] fededunaren bizitzan eta Elizaren bizitzan fedea eragiten dio gainerako guztiari. [...] Frantziskok oroitarazi digu beharrezkoa duela Elizak otoitzaren birika, zeren otoitzik gabe «jarduera guztia antzu gelditzeko arriskua dago eta iragarpena, arimarik gabe» (73. Zbk). Ezin izango da ezer asko egin, baldin bihotzean Espirituaren sua ez badugu; horixe da, izan ere, Elizaren arima (ik. EG 261).

Gure Elizbarrutiaren errealitatea aztertzean, zein etorkizun izango dugu jakin ezinak bata bestearen kontrako sentipenak pizten ditu: konfiantza eta beldurra, lasaitasuna eta etsipena, ziurtasuna eta zalantza.

Jubileu-urte honetan, «Jainkoagan neure esperantza. Hitza hausnartuz» proposamena egokiera ona izan daiteke gure kristau elkarteetan itxaropena suspertzeko. Bibliatik hartutako hamar testu eskaintzen dugu lagungarri, gure itxaropenaren arrazoiak aurkitzeko, horrela geure errealitateari argi eginez.

# JAINKOAGAN JARTZEN DUT NIRE ITXAROPENA

## Topa keta 1

Itxaropenak ez du huts egiten (Erm 5, 1-11)

Itxaropena sortzen da pertsona orenen bihotzean, ongia nahi duelako eta itxaroten. Inoiz baino beharrezkoago dugu orain geure bizitzaz aditzera ematea, badela arrazoirik bizitzeko, itxaroteko, baina arrazoi horiek ez daudela gure baitan, gure kemen psikologikoetan, baizik eta Kristo dugula geure arrazoia eta kemena.

## Topa keta 2

Azkenean bete-bete maitatu (Jn 13, 1-17)

Maitasunari dario itxaropena, eta gurutzean zulatu zuten Jesusen Bihotzari darion maitasunean oinarritzen da. Kristau-itxaropenak hau du bere oinarri: Jainkoaren maitasunetik ez ezerk ez inork ezin alden-duko gaituela ziur jakitea.

## Topa keta 3

### Ez kezkatu (Mt 6, 24-34)

Konfiantza Jainkoagan jartzea ezinbesteko jarrera da fede-bizitzarako. Zeruko hegaztiei eta belazeko loreei begiratzera gonbidatzen gaitu Jesusek, horiek ez baitira biharko egunaz kezkatzen; hala ere, Jainkoak zaintzen ditu. Halakoxe konfiantza osoa izan dezakegu guk ere, Jainkoak gutako bakoitzarentzat bere asmoa duela sinetsiz, eta etengabe maite gaituela eta zaintzen.

## Topa keta 4

### Garia eta iraka (Mt 13, 24-30)

Gaitza, gaiztakeria, itxaropenaren etsaietako bat da; itzali, ezkutatu, uxatu egiten baitu itxaropena... Gaitzak, era batekoa nahiz bestekoa izan, urrutiratu egiten ditu pertsonak Jainkoagandik eta sinesmenetik. Irakaren parabola oso kontsolagarria dugu. Jesusek, teoria hutsean gelditu ordez, errealitatea den bezalakoa ikustera deitzen gaitu, eta Jainkoak nolakoa nahi duen ikustera. Bi ikuspegi horiek kon-tuan izanik, nola jokatu jakin dezagun.

## Topa keta 5

### Barkatuak dituzu bekatuak (Lk 7, 36-50)

Jainkoaren errukia da gure itxaropenaren iturburua. Jesus ohartu da ebanjelioko emakume honen bihotzetik ateratzen diren maitasun-zeinu amultsuez; zeinu xumeak, baina bizitza irabazteko egiten zuena egiteagatik mespretxatua eta gaizki tratua zen emakume harentzat salbamen-iturri bilakatu ziren zeinuak. Asko barkatu zaionak maitasun handia agertzen du. Gutxi barkatu zaionak maitatzeko ere gaitasun handirik ez du. Barkamena maitasunean sortzen da eta maitasunak eraginik dator. Jesusen maite gaitu eta garen bezalakoak onartzen, gure bekatu eta akats eta guzti. Eta gu ere bestee-kiko urrikaltsu izatea nahi du.

## Topa keta 6

Zergatik hain beldur, sinesmen txikikook? (Mt 8, 23-27).

Zein ahul garen erakusten du ekaitzak, eta zein hutsal eta alferrikako diren gure segurtasunak, gure agendak, proiektuak, ohiturak eta lehentasunak erabakitzeko erabili ditugun segurtasunak. Gure bizitza elikatzen, sostengatzen eta indartzen duen hori lotan utzi dugula ikusarazten digu ekaitzak: Jesus. Beldurrak lausotu egiten du gure itxaropena.

## Topa keta 7

Ez al zarete gauza aldien ezaugarriei antzemateko? (Mt 16, 1-12)

Mateoren ebanjelioak dakarrenez, Jesusek «aldien ezaugarriak» esapidea erabiltzen du. Garrantzitsuena zer den antzematen eta epaitzen ez asmatzea aurpegiratzen die bere garaikoei. Joan XXIII.ak eta Vatikanoko II. Kontzilioak erabili eta zabaldu zuten esapide hori. Horrela, errealitateari fede-begiz begiratzera dei egin zieten kristauei, Jainkoaren Hitzaren argitan ikusteko gure garaiko itxaropenak eta helburuak zein diren entzuteko.

## Topa keta 8

Aita, urrundu Nigandik edari samin hau (Lk 22, 39-46)

Berea du gizakiak sufrimendua; gure bizitzaren parte da. Sufrimenduaren misterioa giza bihotzean kokatua dago, oso sakon, nahiz eta beraren esanahia ez dugun erabat ulertzen. Fede-begiz eta itxaropenez begiratzen ikasi behar genukeen errealitatea da. Jesusek ez digu saminari buruzko teoria eskaintzen; bere haragian nozitzen du, eta horrela erakusten digu nola aurkitu gure giza izatearen enigma handi honi zentzua bilatzen –zuribide edo justifikazioa eta erantzuna ez bada ere–.

## Topa keta 9

Ez al geneukan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzazu? (Lk 24, 13-35).

Jesusen jarraitzaileoi zer gertatzen zaigun ikusarazten digu Emausko gertakariaren kontaerak. Bi ikasle haiek Jesusekin bizi izan ziren, pozik egon ziren Berarekin, Berak irakasten zuenarekin, egiten zituen mirariekin; segurtasuna ematen zien, dena lotua zuten... Eta bat batean, Jesusen heriotzak dena hondatua utzi zien, behea jo zuen, ez zekiten zer egin, ez nora joan... Baina Jesus piztua ondora etorri zitzairen eta haiekin egin zuen bidea. Haien bizitzan sartu zen berriz ere Jauna. Baita gure bizitzan ere, halaxe sartzeko da, gurekin dator bidean eta, gonbidatzen badugu, gure bihotzean hartuko du ostatu. Eukaristia ospatzen dugun aldiko, hor dugu geurekin, baita sufritzen ari diren senideengan ere. Gure bizitza eraldatzen duen esperientzia da Jesusen mezua, nahiz eta motelak garen ulertzeko.

## Topa keta 10

Poztu, Maria! (Lk 1, 26-56).

Maria, gure Ama, itxaropenaren Ama da, Jainkoak hitzemandakoa sinetsi zuen emakumea, eta hitzemandakoa bete dela ikusirik pozik den emakumea. Berak ekarri zuen eta ekartzen du mundura gizadia itxaropenez bete zuena: Jesu Kristo, gure Itxaropena.